



# DANOK EUROPAGAZ BAT EGINDA



LEGEGINTZALDIKO  
BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila



# AURKEZPENA

*Legegintzaldiko  
Balantze honen edukiak  
Ingurugiro eta Lurralde  
Ekintza Saileko María  
Esther Solabarrieta Foru  
Diputatuak aurkeztu  
ebazan Bizkaiko Batzar  
Nagusietako Erakunde  
Batzordearen eta Neka -  
zaritza eta Ingurugiro  
Batzordearen aurrean  
1999.eko martxoaren  
31n eta apirilaren 14an.*

LEGEGINTZALDIKO  
BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila



Bosgarren foru-legealdiak (1.995-1.999) abiapuntu sendoa jarri izan du etorkizunerantz inguruaren alorrean. Ibilbide honi hasiera eman genionean, gure ingurugiroa preserbatu eta hobetzea, Bizkairako beharrian larria bihurtu zela esan genuen, ekonomi-garapena, gure eta ondorengo belaunaldien bizitza-kalitatea, neurri handi batean, horren baldintzapean egongo dela erasota utzirik.

Beste alde batetik, toki-instituzioekin adeitasun, hitzegite, adostasun eta elkar-erantzukizunean saiatzeko konpromisoa hartu genuen, gure iritziz, kudeaketa publikoa, guztion arteko adostasun eta lankidetzaren eraginkorrean oinarrituta, egokitze eta lankidetzako maila handiak eskatzen dituen herritarrari etengabeko zerbitzu bat bezala ulertzen dugulako.

Balantzearen ordua iritsi denez gero, emaitzak aurkezten ditugu. Apaltasun, argitasun eta gardentasunaz. Jarritako helburuak bete ditugula uste dut. Bide luzea aurrera eta gure ingurugiroa berregokitzeko behin betiko bultzada eman dugula uste dut. Baita, Bizkaiko udalerriekin bateango lan eta elkarreango ahalegineko espazio berri bat kontsolidatu dugula ere uste dut.

Eta, garrantzikoena, denon artean egitea jakin izan dugula uste dut.

Josu Bergara Etxebarria  
*Bizkaiko Ahalduen Nagusia*

LEGEGINTZALDIKO  
BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

## Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

■ Ingurugiro eta Lurralde Ekintzako Zuzendaritza .....	6
■ Uren Zuzendaritza .....	22
■ Ingurugiro Zuzendaritza .....	34
Eranskinak .....	49

■ LEGEGINTZALDIKO  
BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

# Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

## ■ LEGE AHOLKULARITZA ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO ZERBITZUA

120.204 egitaraua: Toki  
Erakundeentzako Legelarien  
Laguntza eta Lege Aholkularitza

## ■ UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

120.205 egitaraua: Toki  
Erakundeentzako Ekonomi  
eta Kudeaketa Aholkularitza

## ■ LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

## ■ LEGE AHOLKULARITZA ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO ZERBITZUA

• Hasierako Egoera .....	7
• Legegintzaldiko Helburuak .....	7
• Legegintzaldian Egindako Jarduketak .....	8
• Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka .....	10

## ■ UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

• Hasierako Egoera .....	11
• Legegintzaldiko Helburuak .....	12
• Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza .....	13
• Legegintzaldian Egindako Jarduketak .....	14
• Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak .....	18
• Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka .....	21

## ■ Hasierako Egoera

- Legegintzaldiari hasiera eman jakonean, Lege Aholkularitzako Zerbitzua sendotze bidean egoan. Onetsitako egitura organiko barrian, ordurarteko zeregin berberak emon jakozan. Langile barriak sartuaz, Zerbitzua behin-betiko finkatu zan.
- Behar ziran langileak kontratatu ondoren, lehentasunezko jarduketa irizpidea ezarri zan; hain zuzen be, Bizkaiko Toki Erakundeei Zerbitzuko teknikariek emotea lege aholkularitza, izan be, horrela kanpoko kontratazioa saihesten zan.

## ■ Legegintzaldiko Helburuak

- Legegintzaldi honetako lehentasunezko helburuak hiru jarduketa-taldetan banatu genituen:
- Bizkaiko Toki Erakundeei dohainik emoten jaken lege aholkularitza bultzatu.
  - Udalerrien Foru Araua bete Bizkaiko barrendegi guztiak desagertarazoz.
  - Bizkaiko Toki Erakundeetan dauden Idazkari, Kontu-hartzaile eta Idazkari – Kontu-hartzaile lanpostuts kopuru handia hornitu.

## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### ■ LEGE AHOALKULARITZA ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### ■ LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

# Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

## LEGE AHOALKULARITZA ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

## LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

### Legegintzaldian Egindako Jarduketak

1 1995eko urtarriletik 1999ko martxoaren 30era bitartean, Bizkaiko Toki Erakundeei emoten jaken lege aholkularitzari jagokonez, ondoren adieraziko ditugun jarduketak egin ditugu.

	95	96	97	98	99	GUZTIRA
Auzibideak	45	55	54	41	21	216
Administratiboak	27	45	41	37	18	168
Zigorrezkoak	3	2	4	2	2	13
Zibilak	6	2	4	1	-	13
Lanekoak	9	6	5	1	1	22

Deialdiak eta Izendapenak Nazio Mailako Gaikuntzako Funtzionarioak						
	95	96	97	98	99	GUZTIRA
Lehiaketa Arrunta	13	3	5	4	-	25
Lehiaketa Baterakoia	6	-	-	1	-	7

	95	96	97	98	GUZTIRA
	Mungialdea	Txorierri			
Barrendegiei buruzko ebazpena	-	22	-	52	74

	95	96	97	98	99	GUZTIRA
Kontsultak	3.100	3.700	4.200	1.200	875	13.075

	95	96	97	98	99	GUZTIRA
Aginduzko txostenak	55	56	67	44	19	241

	95	96	97	98	99	GUZTIRA
Irizpenak	39	56	41	11	5	152

	95	96	97	98	99	GUZTIRA
Bitartekoak	3	3	1	-	1	8

2 Legegintzaldiaren hasieran egozan barrendegiei jagokenez, urteetan eta urteetan barrendegi izandakoen ganeko ebazpenak hartu, eta Bizkaiko Udale-riren 8/93 Foru Arauak exijitzen dauan lurralde-jarraitasunari buruzko eredura egokitu ditugu.

Aitatutakoa kontuan hartuta, Lurraldea hiru eremu handitan banatu dogu:

#### **Plentzia-Mungia:**

11 udalerriri jagokozan 22 barrendegi egozan. Espe-diente hau behin-betiko ebatzi dogu.

#### **Txoriherri:**

Eremu honetan 52 barrendegi egozan eta barrende-gi horreetako zerbitzuen kudeaketa Txoriherriko 8 udalen esku egoan.

Denbora luzean negoziatzen ibili ondoren, barren-degi horreek guztiak tramitatu eta ebatzi ditugu.

#### **Bizkaiko gainontzeko lurraldea:**

Gaur egun azterketa, ebaluazio eta ebazpen-propo-samen fasean dago. 16 udalerriri jagokozan 14 bat barrendegien behin-betiko ebazpenak dauka lehen-tasuna.

3 Legegintzaldiaren hasieran egoan Idazkari, Kontu-hartzaile eta Idazkari – Kontu-hartzaile lanpostuts kopuru handia betetzeari jagokonez, leku-aldatze lehiaketa bi deitu ditugu urtean, beti be, dagoan lanpostuts kopuru handia betetzeko asmoz. Lanpostuts horreetatik guztietatik 32 behin-betiko bete ditugu gaikuntza-funtzionariakaz, beti be, aukeraketa prozesua egin ondoren.

Bestalde, eta gaur egun dagozan lanpostutsek sortu-tako beharrizan iragankorrak betetzeko asmoz, 8 bitarteko funtzionario aukerako ditugu, beti be, deialdi publikoa egin ondoren.

## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### LEGE AHOLKULARITZA ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saia



## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### ■ LEGE AHOALKULARITZA ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### ■ LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

### ■ Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

Arlo honek zerbitzuak eskaintzen ditu, baina ez dau inbertsiorik egiten; hori dala eta, Zerbitzuko urteko aurrekontuetatik funtzionamendurako eta prokuradoreei minutak abonatzeko bideratutako zenbatekoak hartuko ditugu kontuan. Zenbateko horreek Sail honek hartzen ditu bere gain zerbitzua doan emateko asmoz.

1995	1996	1997	1998	1999(*)	99/95
21.482.000	15.000.000	14.500.000	14.500.000	2.210.489 (12.000.000)	%-56

(\*) 1999ko martxora arte egina

Aurrekontuko zenbatekoen beheranzko bilakaera nabarmenak badauka bere arrazoia, izan be, lege aholkularitzako zerbitzu osoa bertoko langileek eskaintzen dute, kanpoko kontrataziora jo barik.

## ■ Hasierako Egoera

- Zerbitzu honek 95/99 legegintzaldiaren hasieran eukan egoera Sailaren Egitura Organikoa arautzen dauan 150/95 Foru Dekretuak zehazten dau. Aldi berean, baina, dekretu horrek eskumen barriak emoten deusoz zerbitzu honi.
- Une horretara arte, lanerako ildoek aurrekontu-aholkularitza eta aholkularitza finantzario-fiskala (tasak, prezioak, zergak) baino ez eben eskaintzen, eta hori txosten edo kontsulta telefonikoen bidez egiten zan. Aitatutako lanerako ildo horreek kontabilitate plan orokor barri baten onespenu markatuta egon ziran, izan be, plan hori zala eta, SICALen aplikazio zehatz bat diseinatu eta ezarri behar izan genduan; horrek, aldi berean, gai horren inguruan diseinatu eta emandako Prestakuntza egitarau guztiak baldintzatu zituan.
- Halaber, lanerako beste ildo bat be baegoan, hain zuzen be, Bizkaiko udalei ondasun-inbentarioak zuzkitzea, beti be, ondareari buruzko informazioa hobetu eta arautegiak betetzeko asmoz.
- 1995eko azaroaren 7an argitaratutako 150/95 Dekretuak erantzukizun barriak emon eutsozan Zerbitzu honi. Aitatutako erantzukizun horreek aurreantzean egin beharreko kudeaketa zehaztu eben.

Hona hemen eratzikpen barri aitagarrienak:

- Toki Erakundeen egoera ekonomiko eta finantzarioaren eta bilakaeraren azterketa, batetik, eta indarrean dagoan arautegiak emoten deusoen eskumenei eta zerbitzuei aurre egiteko udalerriek daukiezan finantziario beharrezan azterketa, bestetik.

- Arestian aitatutakoaren ondorioz, Zerbitzuaren zeregina da Toki korporazioei jagokezan zerga itunduetako eta itundu gabeko zergetako partaidetzen banaketako formula alternatiboen azterketa. Aitatutako dekretua argitaratu baino lehen, Lurralde Azterlanen Erakundeak eukan eskumen hori.

• Aitatutako eratzikpenaren garapena egitea eta udalen finantziarioari jagokezan arauen azterketan eta proposamenean laguntzea zala eta, udalerrietako ordezkariakaz topaketa-foroa eratzeko beharrezana ikusi genduan, beti be, lurraldean zehar udal-fondoan banaketa berrerekatuko leukien balizko ereduak adosteko asmoz.

• Aitatutako foroa 4/96 Foru Arauak eratu eban, eta, ondorioz, Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua sortu zan. Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua Udal Administrazioaren eta Foru Aldundiaren arteko partaidetza eta koordinazio organoa da, eta Bizkaiko herri arloaren jarduerari ekonomiko-finantziarioari eta aurrekontu jarduerari jagokezan gaietaz arduratzen da.

## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### ■ UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### ■ LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

• Horrezaz ganera, Udal Azterlan eta Toki Erakundeentzako Ekonomi Laguntzarako Zerbitzuaren asmoa beste jarduera-arlo batzuk garatzea da, besteak beste:

- Udaletako herri zerbitzuen kudeaketa eta ustiapenerako formulak diseinatzea.

- Toki Erakundeei buruzko informazio-sistemak eratu eta mantentzea. Informazio-sistema horreek erraztasunak emongo deusiez udalei, besteak beste, aurrekontu, zerga, diruzaintza edo inbertsio kudeaketari buruzko erabakiak hartzeko orduan.

- Etorbizuneko helburu estrategikoak zehaztuko dabean plan estrategikoak eta plan horreek betetzeko egin beharreko jarduketak martxan jartzea.

• Udal mugapenakaz zerikusia daukien jarduketak proposatu eta ebaztera bideratutako azterketak egitea.

### Legegintzaldiko Helburuak

• Toki Administrazioen funtzionamendu globala hobetu gura dogu arlo guztietan, hau da, ekonomi, administrazio, zerga eta prestakuntza kudeaketan, beti be helburu bategaz, Toki Erakunde horreetako bezeroak edo biztanleak pozik egotea jasotzen dabean zerbitzuakaz. Zerbitzu guztiak eraginkortasun erizpideakaz eskainiko ditugu.

Horretarako, Zerbitzuaren jarduketak lau talde nagusitan banatu genituen.

- Zerga itunduetan udalek izan behar dabean partaidetza eta zergen banaketa udalakaz adostu.

- Arlo ekonomiko-finantzarioan, administratiboan eta kontularitzan Toki Erakundeei laguntza emon, babestu eta aholkatu.

- Udal langileen gaikuntza teknikoa, gaitasuneko eta jarrerazkoa suspertu, beti be, udal zerbitzuak hobetzeko asmoz.

- Toki Erakundeen arteko jarduketak koordinatu, bai eta Aldundiarekikoak be; beti be, Erakundeen arteko komunikazioa hobetuz eta udal kudeaketaren aurrerapenerako baliabideak eskainiaz.

## ■ Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza

- Bereganatutako eratzikipenak inplementatu eban 159/95 Foru Dekretuaren ondorioz, eratzikipen horreek burutu ahal izateko honako hauxe erabaki genduan:

- Finantzen Lurralde Kontseilua sortu, udalerrriak eta Foru Aldundia bertan batu eitezan. Kontseilu horren zeregina da udal finantziaziarako baliabideen banaketa-erizpideak zehazteko prozesuan udalerriek behar bezala parte hartzen daben bermatzea, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko herri arloko jarduera ekonomiko-finantziariogaz eta aurrekontu jardueragaz zerikusia daukien gaiet buruzko proposamenak lantzea.

- Halaber, eta udal kudeaketako erabakiak hartu ahal izateko behar dan informazioa eskaintzeko asmoz, nahitaezkoa zan datutegia sortzea. Datutegi horrek udaletako plantila organikoak, kitapenak eta aurrekontuak bildu, eutsi eta erabilgarri bihurtu behar zituan (Kontabilitatearen Eskuliburua).

- Toki Administrazioako langileei bideratutako prestakuntzak gai asko jorratu behar zituan, hau da, ez zan mugatu behar kontabilitate gaietara. Besteak beste, honako gai hauek jorratu behar zituan: kontratuen lege barriak, hiri kudeaketa, administrazio prozedura, lurzoruaren lege barria, zerbitzu kostuen

azterlanak (Udalkost), kontabilitaterako aplikazioa (SICAL), etab.

- Komenigarria zan komunikazio edo komunikazio-elkartrukerako linea arin, azkar eta irekiagoen garapena planifikatzea, beti be, teknologia barriak baliatuz, hala nola, sare telematikoak. Xede horregaz sortu zan, hain zuzen be, Bizkaiko udal sarea (Udale).

- Euro eta 2000 Urtea efektua gaindituko eben Windows inguruneko kudeaketa-tresna barriak informatikoki garatu behar zirala be erabaki genduan.

## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### ■ UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### ■ LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

### Legegintzaldian Egindako Jarduketak

- Itundutako zergetan eta zerga horreen banaketan udalen partehartzea udalakaz adosteko helburua bete guran, beti be, finantziazio orekatuagoa lortzeko asmoz, Finantzen Lurralde Kontseilua eratu dogu itun bidez. Finantzen Lurralde Kontseilua 13 aldiz izan da deitua legegintzaldi honetan.
- Aitatutako kontseilua eratzearen ondorioz, Udalkutxa Fondoaren banaketa eredu barria garatu dogu Toki Ogasunen 5/89 Foru Araueko 39, 40 eta 41. artikulua aldarazoz.
- Foro horretan, Udal Finantziazioko Fondoaren behin-behineko partaidetzak eta behin-betiko kitapenak egotea (kopurutan eta denboran) be erabaki zan.
- Organo hori erabakiorra izan da etorkizunean udalak Dirubideen Euskal Kontseiluan izan daitezkan. Onartu barri dan eta 2002. urtera arte indarrean egongo dan ekarpenen legearen ganeko negoziatzeetan, Lurralde Kontseilua baliagarria izan da Dirubideen Euskal Kontseiluan aurreko legeagaz Bizkaiko udalek izan eben egoera azaltzeko.
- Halaber, Bizkaiko Lurralde Kontseiluan udalen eta Foru Sailen arteko eskaerak eta harremanak koordinatu dira.
- Izan be, 1997-2002 urteetarako udalakaz adostutako ereduak udal finantziazioa baldintzatu dau. Udalei bideratutako itundutako zergetan gitxienez %53ko partaidetza bermatu da. Itun horren eraginez, 95eko 28.410 pta/biztanle-tik 99ko 46.471 pta/biztanle-ra igaro gara.
- Finantziazio itunaren eraginez, 95-99 legegintzaldiko “Zehaztugabeak” partidako 1.730 milioi aurrekontuan aurreikusitako barik egozan eta udal ekonomietan kalte handiak eragin eikiezan egoerei aurre egiteko erabili ahal izan dira, bai eta zenbait udaletako ekonomi saneamendurako planei aurre egiteko be.

- Bestalde, eta, beti be, Toki Erakundeei arlo ekonomikoan lagundu, babestu eta aholkatzeko asmoz, legegintzaldi honetan azterketak eta txostenak egin ditugu.

	Aztertutako erakunde kopurua	Zenbatekoa (pta)
Bizkaiko udalerrietan eskainitako zerbitzuek ekarritako gastuaren Azterketa Funtzionala	111	16.000.000
Bizkaiko udalek egiten dituen zerbitzuen eta jardueren kostuen azterlana.	111	71.400.000
Zerga kudeaketako prozedurak	111	1.800.000
Bermeoko Udaleko egoera ekonomiko eta finantzarioa		1.900.000
Bizkaiko Lurralde Historikoko Hiri Hondakin Solidoen, Kiroldegien eta Liburutegien kudeaketarekiko adostasunari buruzko azterlana	111	2.000.000
Erandio, Plentzia, Ortuella eta Portugaleteko udalerrietako saneamendu ekonomikoko planak		35.000.000
<b>GUZTIRA</b>		<b>126.100.000</b>

- Halaber, ondorengo txosten edo azterlanak be burutu ditugu:

	Aztertutako erakunde kopurua
Egoera ekonomikoari eta finantzarioari buruzko txostenak	19
Saneamendu ekonomiko eta finantzarioko planen diseinua eta jarraipena	6
Bizkaiko udal guztietako tasen eta prezio publikoen kudeaketaren azterketa (2 jarduera)	111
Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Partzuergoaren azterlana	8

## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

# Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

## UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Burutu Beharreko Ekintzen Piangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

## LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saia

• Finantza babeseko atalean, 1995az geroztik 107 kreditu-eragiketaren barri emon dogu, eta, halaber, baimendu egin ditugu. Zenbatekoari jagokonez, 1995an zor globala 58.595 milioikoa zan; eragiketa horreen ondorioz, 1999an 59.552 milioikoa da.

• Bilakaera horrek adierazten dau zorpeketa erlatiboa %12,3 murriztu dala. Hau da, 1998an udalerriek diru-sarrera arrunten proportzio txikiagoa (1995ean %61,7; 1998an, berriz, %54,1) erabili eben beren finantza pasiboak erabat amortizatzen.

• SICAL (Toki Administrazioentzako Kontabilitate Sistema Informatikoa) barriaren aurrekontu-kontabilitatean laguntza emoteko asmoz udalerriei eskainitako laguntzari jagokonez, 1998an 111 erakunderi emon jaken laguntza. Kontuan hartzen badogu 1996an 67 erakunderi emon jakela laguntza, argi ikusi daiteke eskaera hori eta eskaerari jagokon zerbitzua sendotu egin dala.

• Prestakuntzari jagokonez, eta beti be udal zerbitzuen prestazioak hobetu daiezan udal langleen gaikuntza teknikoa, bai eta gaitasun eta jarrera gaikuntza be sustatzeko asmoz, Zerbitzu honek honakoa egin eban: batetik, zenbait galdesortaren bidez, prestakuntza beharrianen azterketa eta ebaluazioa; eta, bestetik, HAEErekin hitzarmena sinatu eban aitatutako prestakuntza-egitaraua antolatzen.

• Gauzak holan, legegintzaldi honetan 60 ikastaro antolatu ditugu. Ikastarootan 95 udaletako eta 16 toki erakundetako langileak izan dira; guztira 599 partehartzaile izan dira. Gai desbardinei buruzko ikastaroak izan dira, besteak beste, kontabilitatea, kontratazioa, lurzoruaren kudeaketa, kostuen azterlanak, hirigintza eta administrazio prozedura.

• Laugarren eta azken helburua erakundeen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzea eta udal kudeaketaren aurrerapenerako baliabideak eskaintzea da. Helburu hori betetzeko asmoz, Zerbitzu honek ondorengo jarduketak egin ditu:

- Udalen aurrekontuen eta kitapenen datutegia sortu dogu, bai eta informazio hori elkartrukatzeko eta iraultzeko beharrezkoa dan software-a garatu be.

- Udalen arteko sare telematikoa egiten hasi gara unean berean udalekin konexioan jartzeko. Sare telematikoa Lantik-en Internet zerbitzariak eusten dau. Horren guztiaren ondorioz, informazioa eskaini eta lortu ahal izango da kudeaketa hobetzeko. (Udale).

- Tasen, prezio publikoen eta udal zergen zergakudeaketako Bizkaiko datutegia udalen esku jarri dogu eta, era berean, udal ordenantzak 5/89 Foru Arauko tasa eta prezioei buruzko aldarazpenari ego-

kitzeko egin beharreko lana koordinatu dogu.

- Bakio, Ondarroa, Sopelana, Galdakao eta Zornotzako udalen eskaerak aintzat hartu ditugu. Eskaera horreen xedea aitaturako udalerrien plan estrategikoak finantzatu, koordinatu eta martxan jartzea zan.

- Jagokon arautegia betetzeko asmoz, udal-ondasunen inbentarioak finantzatzeko politikari eutsi deutsagu. Honezkerok, Zerbitzu honek Bizkaiko inbentarioen %84 egin ditu, bideratutako eskaera guztiak aintzat hartuaz.

- Udaletako zerbitzu ekonomiko-finantzarioek aitaturako inbentarioak egunero eta etengabe gaurkotu daiezan, programa informatiko bat diseinatu ari gara, nahitaezko gaurkotzea eskatzen dauan kontabilitateagaz lotzeko.

- Mungialdeko eta Txorierriko lurralde barrendegien auzia ebatzi dituen azterlanak garatu ditugu (19 udalerriri jagokezan 74 barrendegi).

- Lan prozedurak, metodoak eta formatuak berritzeko asmoz, hiztegi elektroniko tekniko-administratiboa (euskara-gaztelera) eta arautegi, kontabilitate eta aurrekontu-prozedurako eskuliburua egin dogu toki erakundeentzat.

- Aplikazio informatiko bat (Udalkost) eskaini dogu. Aplikazio informatiko horregaz eta jagokon prestakuntza prozesuagaz, udalek bereaiek egin ahal izango ditue udal zerbitzuen ganeko azterlanak.

• “Bizkaiko Udal Heraldika” argitalpena. Lurralde Historikoko udalerriak ofizialki ordezkatzeko dituen armariak eta banderak lehenengo aldiz bildu, irudikatu eta deskribatzen ditu irizpide vexilologiko egiaztatuagaz. Bizkaiairean eta Bizkaiko udalerrien aurkezpen agiria izatez ezeze, aitaturako historian interesa daukienen jakingura be asetuko dau.

• Aldundiaren Foru Agiritegiko erakusketa iraukurrean ikusgai izandako Bizkaiko lurralde adierazgarrien bildumak lurralde horreek udalerriri bakoitzaren historian izandako garrantzia islatzen dabe.

## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila



## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

### Lortutako Aurrerapena

- Udal Azterlan eta Ekonomi Laguntzako Zerbitzuak ez dauka izaera inbertitzailerik, ezpada aholkularia. Jakina, aholkularitza horren ondorioz udal kudeaketan lortutako aurrerapenak zenbatekotzea oso zaila da.
- Dana dala, esan daikegu legegintzaldiaren hasieran egoera ekonomiko eta finantza, antolaketa eta administrazio egoera zailean egozan toki erakunde batzuk (Plentzia, Erandio, Zaldibar, Ondarroa, Bermeo, Durangoko Mankomunitatea, Ezkerraldeko Zaborren Mankomunitatea) laguntza eta finantziarioa jaso dabela saneamendu planak garatzeko, eta horri esker, gaur egun egoera finantzario onean dagozala hurrengo legegintzaldiei aurre egiteko eta, ganera, ez daukiela diruzaintzako gerakin negatiborik.
- Lekeitio, Portugalete eta Ortuellak be izan dabe laguntza aitaturako azterlanak egiteko, eta denbora gutxi barru jarriko ditue martxan azterlanek agindutako neurriak beren ekonomiak saneatzeko asmoz.
- Mungia, Durango eta Galdakaoko udalek aurrekontuaren kontrolerako eta betearazpenerako sistema (helburuka), udal kudeaketaren kalitate plana eta langileen antolaketa-egitura hobetzeko azterlana jarri dabe martxan. Hiru plan horreek Sail honen finantziarioa eta aholkularitza izan dabe.
- Aurrekontuaren kontabilitateari jagokonez, aurre-rapentzat hartu behar dogu, toki aurrekontuen kontabilitatea eroateko, gaur egun, 94 erakundeek erabiltzea Sail honek diseinatutako aplikazioa. Horren ondorioz, bai eta garatutako prestakuntza prozesuaren ondorioz be, erakunde guzti honeek beren kontabilitatea eguneratua izatea lortu dogu; kontuan hartzekoa da, 1995eko martxoan %44k baino ez eukala aurreko aurrekontu ekitaldia kotableki itxita eta %22k baino ez eukala kontabilitatea eguneratuta.
- Udal inbentarioen gaurkotze politikaren ondorioz, gaur egun udalerrien %84k eta partzuergo eta mankomunitateen %59k inbentario barria izatea lortu dogu; hau da, 95ean baino %20 eta %24 gehiago, hurrenez hurren.
- Lanerako ildo berean, tresna informatiko barria eskaini dogu Windows-en, baliabide, bide eta metodo propioak ez dituen udalek aitaturako inbentarioak gaurkotu eta mantentitu ahal izan daien.
- Ekonomiari jagokonez, lortutako udal finantziario fondoak banatzeko eredu barriaren eraginez, biztanleria geruza desbardineko udalen arteko aldea murriztuz doa.
- Horrek esan gura dau eredu barriak udal txikien

berezitasuna errespetatzen dauala. Aldi berean, lan-gabezia, ahalegin fiskala, biztanleria, eskoletako gelei eustea, biztanleria guneen sakabanaketa eta erabilera komuneko hondartzen mantenimenduaren gisako berezitasunetan oinarritutako desbardintasunak orekatzen ditu.

- Ekonomia alde batera itxi barik, Lurralde Ekintza Zuzendaritzaren eskumena dan finantza babesak Udalek eskatutako zorpeketa eragiketak aztertzer behartzen dau, beti be, zorpeketa barriek ekarritako betebeharrei aurre egiteko daukien gaitasuna aztertuz.

- Dana dala, 95-99 epean Bizkaiko Udalek eukien zorrak %1 bakarrik egin dauala gora egiaztatu daiteke, hau da, 58.595 milioikoa izatetik 59.552 izatera pasatu da; udalen diru-sarrerara arruntak, barriz, epe berean, 95.036 milioitik 110.127 milioira gehitu dira, hau da, %15,9 egin dau gora. Zenbateko errealetan hitzegingo bagendu be (hau da, 95eko pezeta aldaezinetan), ikusiko geunke udalerrien zor biziak %6 egin dauala behera; 1995ean 58.595 milioikoa zan, 1998an, ostera, 55.087 milioikoa.

- %10 baino zorpeketa indize handiagoa daukien udalerrien proportzioak be %31,53tik %10,81era egin dau behera 1995etik 1998ra bitartean. 1995ean, %10etik gorako zor hori zor guztiaren %87 bazan

be, 1998an %10etik gorako zor hori zor biziaren %9,4 izan zan (batez be Bilbon izandako bilakaeraren ondorioz).

- Horrek guztiak esan gura dau finantza zamari (interesak + amortizazioak) aurre egiteko udalerriek eragiketa arruntakaz beren baliabideengan egin dituen ahaleginak nabarmen egin dauala behera 95-98 epean.

- Zorpeketa erlatiboaren parametroa erabiliz, esan beharra dago zorpeketa erlatiboak %12,3 egin dauala behera edo, beste modu batera esanda, 1998an, udalerriek 1995ean (%61,7) baino diru-sarreraren proportzio txikiagoa (%54,1) erabili behar izan dabela beren finantza pasibuak amortizatzeko.

- Halaber, aitagarria da, urteroko pezeta arruntetan hitz eginez, 1995ean udalerrien %36 (zor biziaren %92,35 osatzen eben) %40 baino goragoko zorpeketa erlatiboko geruzetan egozala; 1998an, ostera, portzentaia horrek %22,73raino egin dau behera, eta zor biziaren %81,8 da.

- Aitatutako indize guztiak eta epe horretan diru-sarrerara arruntek %16 eskas egin dutela gora (KPI metatua baino askoz gehiago) kontuan hartzen badogu, zergapetzea eta zerga-bilketa hobetzeko garatutako politika egokia izan dala esan daikegu.

## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Sailea

# Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

## ■ UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

## ■ LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

• Finantza egoerak zeresan handia izan dau aitaturako kopuruak lortzeko orduan, izan be, finantza zama izendatuak (interesak + amortizazioak) %22 eta %26 egin dau behera pezeta aldaezinetan 95-99 eoean.

• Gauzak holan, finantza zama (interesak + amortizazioak) finantzatu daben diru-sarrera arrunten portzentaiak %33 egin dau behera; 1995ean %9,6 zan eta 1998an %6,5.

• Beraz, argi eta garbi dago aztertzen ari garen epe honetan, udalerriek beren zorpeketak eragindako finantza zama ordaintzera bideratutako diru-sarrera arrunten proportzioak beherazko joera izan daua.

## Lurralde Ekintzako Zuzendaritza

### UDAL AZTERLAN ETA TOKI ERAKUNDEENTZAKO EKONOMI LAGUNTZAKO ZERBITZUA

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dituen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka

### LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

Jardunaldeka	Zenbatekoa (pta)
Prestakuntza plana (HAEEgaz hitzarmena)	25.000.000 <sup>(1)</sup>
SICAL aplikazioa: Mantenimendua, Gaurkotzea, Datutegi kudeatzailea eta Kontabilitate informazioaren azterketa.	9.125.024
Udalen ondasun eta eskubideen inbentarioak:	
- Aurretiaz egin gabeko inbentarioak (23 Toki Erakunde)	30.395.000
- Inbentarioen gaurkotzea (54 Toki Erakunde)	10.700.000
Kontrataturako azterlanak	116.751.840
Hiztegi tekniko-administratiboa, euskara-gaztelera	5.000.000
SICAL eta Aurrekontuen datutegia doitzea (4 enpresa)	6.432.580
Kontabilitate publikoko eskuliburuak egitea	500.000
Udale – Sare Telematika	31.700.000 <sup>(2)</sup>
Bizkaiko Udalerrien liburua eta heraldika	6.605.780
	<b>GUZTIRA</b>
	242.210.224

<sup>(1)</sup> 1996 – 1997 – 1998 – 1999

<sup>(2)</sup> 1998 - 1999

# Uren Zuzendaritza

## ■ HORNIKUNTZA ZERBITZUA

440.101 egitaraua:  
Obra hidraulikoak

## ■ SANEAMENDU ZERBITZUA

440.101 egitaraua:  
Obra hidraulikoak

## ■ PLANAK KOORDINATZEKO ZERBITZUA

910.202 egitaraua:  
Udalkidetzak

## ■ LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

• Hasierako Egoera .....	23
• Legegintzaldiko Helburuak .....	24
• Europako Politikagaz Identifikatzea .....	25
• Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza .....	26
• Legegintzaldian Egindako Jarduketak .....	29
• Lortutako Aurrerapena erakusten daberen datuak .....	32
• Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka .....	32
• Udalkidetzaren Bilakaera .....	33

## ■ Hasierako Egoera

- Urei eta azpiegitura hidraulikoei jagokenez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Sustapen eskumenak edo jarduerak sakabanatuta egozan. Halandaze, uholdeen aurkako azpiegituren eta ubideen babesaren Herri Lan Sailak kudeatzen eban, Hornikuntza eta Saneamendua Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Sailaren Zuzendaritza Nagusiaren esku egoan; zenbait kasutan, ganera, hain zuzen be landa guneeetan, Nekazaritza Sailak dirulaguntza emoten eban instalazioak ipinteko. Azkenik, uraren kudeaketako arlo handi bat, hain zuzen be, Bizkaiko Edukieren Planaren bidez baliabideak zehaztea eta baliabide horreen plangintza egitea, atzera bidean egoan eta Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saileko Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen eban.
- Sailaren Egitura Dekretu barriak dinoanez, urari jagokonez Bizkaiko Foru Aldundiak dituan eskumen guztien ardura Uren Zuzendaritza Nagusiak ditu.
- Sail honetan sartu zanean, uraren arloa atzerapen unean egoan. Orduko ahaztuta egozan, Europa 93 eta Ekonomiaren Berrekitibazio eta Enplegurako Fundoa (EBEF) programei esker aurrekontuek bizi izandako garai onak. “Uren arlora” bideratutako Sailaren aurrekontuak 1994. urteko luzamendutik zetozen. Ia ez zan hornikuntza lanik aurrekontuetan sartu eta arestian aitatutako EBEFen babesean mar-txan egozanak bukatzear egozan.

## Uren Zuzendaritza

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Europako Politikagaz Identifikatzea
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dabena datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka
- Udalkidetzaren Bilakaera

### LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

# Uren Zuzendaritza

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Europako Politikagaz Identifikatzea
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten daberen datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka
- Udalkidetzaren Bilakaera

LEGEGINTZALDIKO  
BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

## ■ Legegintzaldiko Helburuak

- Lurraldeak dituan ur arazoaren aurrean Sailak daukan jarrera laburbiltzen dauan helburu argi eta baka-rra dago.

### “Uraren kudaketa hobetzea”

Esaldi labur horrek argi eta garbi laburbiltzen dau legegintzaldiari zernolako asmoakaz ekiten jakon; kudeaketa hobetzea honako hauze da: hain eskasa dan baliabide bat (baita gure lurraldean be) eskaintzeko eta babesteko behar diran baliabideak eskaintzea. Kudeaketa hobetzea erabiltzaileen esku biltze eta arazketa sistemak jartzea da, izan be, horrela erabilitako urak emari hartzaile bera ahal izango dira eta emari hartzailea bera barrero erabiltzeko moduan izango da.

Helburu hau bete ahal izateko bost bide nagusi jorratu ditugu:

- Baliabide barriak bilatzea, beti be, toki urbegi eta emariak hobetuaz eta baliatuaz, bai eta ura aurrezte sustatuaz be. Ura aurrezteko kudeaketa hobetu behar izan dogu, ur-ihesak kendu eta emarien kontrol zorrotzagoa egin.
- Toki sareak alkarregaz lotu ditugu toki egiturak biltzen dituen sare barriak sortuaz; holan, aprobe-

txamendu hobe sustatu dogu eta Zerbitzuaren kalitate indartu.

- Behe Ibaizabaleko Arroak eta Artibai, Oka eta Kadagua ibaiak arazi ditugu.
- Ur kontinentalei jagokenez, Lurralde Historiko-koak izan daitekezan eskumenak negoziatu eta bereganatu.
- Lurralde Historiko guztiko tarifa sistemak normalizatzeko neurriak hartu.

- Uren hornikuntzari jagokonez, Europako politikaren oinarria zuzentarau askok osatzen dabe. Zuzentarau horreek, funtsean, tratamendu egokiak egin ondoren eta kanalizazio sare publikoek hornituta, edateko ura ekoiztera bideratutako edo erabilitako lurgaineko uren kalitate eta kontrol arauak dira.
- Saneamenduari jagokonez, zuzentarau garrantzitsuena hiriko hondakin uren saneamenduari buruzkoa da (98/271/EEE Zuz.).
- 1996ko otsailean, Batzordeak berriematea aurkeztu eutsan Europako Kontseiluari eta Parlamentuari. Aitatutako berriemateak markoa ezarri eban Uren politikari jagokozan ekintza komunitarioentzat (azken finean, ur baliabideen kudeaketarako politika integratua sortu eban).
- Zuzentarau proposamen horrek argitaratutako gainontzeko zuzentzarauak biltzen ditu eta, lehenengo aldiz, Europako Batasunean urei buruzko politika orokorra ezartzen dau.
- Testu hau gaur eguneko arautegia berregituratzera dator eta bi helburu nagusi ditu:
  - Ura kutsaduratik babestea.
  - Gehiegizko bilketak saihestea.

2.010. urterako *“lurgaineko eta lurrazpiko ur guztiak egoera onean izan behar dira”*.

Arro hidrografikoa administrazio unitatetzat hartzen dau, izan be, horixe da uren kudeaketarako oinarria.

- Zuzentarau proposamen honek beste barrikuntza bat be badakar, izan be, estatu kideak derrigortzen ditu *“gehienez jota 2010. urtean, uraren erabilera -ri lotutako zerbitzuen kostuak erabiltzaileek ordaindu daien”*.
- Europako Politika eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Politika bat datozena argi dago. Saneamenduari jagokonez, gure helburuen artean gaiari buruz indarrean dagoan Zuzentzaraua zorrotasunez betetzea dago.

Hornikuntzari jagokonez, udalerrien eta erabiltzaileen esku instalazio moderno eta eraginkorrak (Europako Batasuneko Estatu aberatsenen parekoak) jartzeaz ezeze, gure helburu nagusia (uren kudeaketa hobetzea) lortzeko, Arro Hidrografiko banaezinean oinarritutako Uren Administrazio Bakarra sortu behar dogu. Halaber, udaletako Hornikuntza eta Saneamendu Zerbitzuen kudeaketa hobia lortzeko asmoz, zerbitzu guztiak udalez gaindik kudeaketa erakunde baten elkartzea proposatu dogu. Legegintzaldiari hasiera emon jakonetik, Foru

## Uren Zuzendaritza

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Europako Politikagaz Identifikatzea
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dabon datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka
- Udalkidetzaren Bilakaera

■ LEGEGINTZALDIKO  
BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Sailea



# Uren Zuzendaritza

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Europako Politikagaz Identifikatzea
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dabon datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka
- Udalkidetzaren Bilakaera

## LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

Aldunditik beti ibili gara udalerriei esaten beren tarifak Zerbitzuaren kostu errealei egokitzeko, eta proposamen argi eta sendoa izan da Bizkaiko Lurralde Historikoko tarifa sistemen normalizaziora bideratutako neurriak hartu izana.

### ■ Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza

- Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena da udalerriek beren betebeharrak betetzen dituela bermatzea. Bizkaiko Foru Aldundiak Hornikuntza eta Saneamendu azpiegituren defizit egoera aztertu eban helburu zehatz batzukaz eta epe jakin batzutarako; helburu horreek guztiak, bestalde, gaur egunean dagoan Plangintza Hidrologikoagaz, Plan Hidrologiko Norte II eta III-gaz eta Europako Zuzentarauakaz koherenteak dira:

#### Hornikuntzan

*Bizkaitar guztiak behar beste ur eta behar bezalako kalitatekoa izatea.*

*2.012. urtean bizkaitar guztiak egunean 350 litro eduki ahal izatea.*

- Helburu horreek bete ahal izateko, 2.012. urterako 24.000 milioi pezetako inbertsioa egin beharko dogu.

- Inbertsio horretan ez genduan aurreikusten Behe Nerbioiko eta Garaiko Hornikuntzarako dan Herri-erri Urtegia, izan be, inbertsio hori Estatuko Administrazioak bereganatu eban.

ARROA	BIZTANLEAK	INBERTSIOA (M.M.)
Artibai	17.282	410
Lea	10.144	437
Oka	44.638	4.135
Butroe	29.829	1.557
Gobela	122.358	15.070
Asua	41.236	
Nerbioi-Ibaizabal	586.139	
Galindo	268.199	
Barbadun	18.764	740
Kadagua	22.201	1.260
Enkart.-Karrantza	3.982	700
	1.164.772	24.309

## Saneamenduan eta Arazketan

*Industri eta hiri uren isurketa guztiak 1991ko maiatzeko Zuzentarauak ezarritako baldintza eta eskakizunetan biltzen eta arazten dirala bermatzea.*

*Bizkaiko ibai guztietan 2.012. urtean arrainak iza-  
tea.*

- Helburu horreek lortu ahal izateko 60.000 milioi-ko inbertsioa egin beharko dogu 2.012. urtera arte.

ARROA	BIZTANLEAK	INBERTSIOA (M.M.)
Artibai	17.282	2.235
Lea	10.144	330
Oka	44.638	7.908
Butroe	29.829	2.629
Gobela	122.358	44.278 (Behe Nerbioi)
Asua	41.236	
Nerbioi-Ibaizabal	586.139	
Galindo	268.199	
Barbadun	18.764	550
Kadagua	22.201	2.067
Enkart.-Karrantza	3.982	220
	1.164.772	60.207

- Inbertsio horretan ez dagoz sartuta Estatuko Administrazioak egin beharrekoak; hori guztia 1994ko maiatzeko Hitzarmenean bilduta dago. Aitatutako hitzarmena Uren Transferentzia zala-ta egin zan; Bizkaiko lurraldeari jagokonez, Galindoko eta Urdaibaiko Araztegiak egiteko konpromisoa hartu eban Estatuko Administrazioak; Arabari eta Bizkaiko lurralde txiki bati jagokonez, Aretako araztegia egiteko konpromisoa be hartu eban (Nerbioi Garaiko Arroko isurketak arazteko).

- Halandaze, 2.012. urtea baino lehen 84.000 milioi pezetako azpiegitura-defizitari aurre egin behar geuntsan; defizit hori 15 urtetan bardintasunez banatu ezkeru, urtean 5.600 milioiko inbertsioa egin behar izango geunke.

- Bardintasunez banatzeko urtenbide hori ez litzateke nahikoa izango, izan be, 2000. urtearako Saneamenduaren ganeko betebeharrekin 24.000 milioiko inbertsioa eskatzen eben, hau da, Saneamenduan bakarrik, 6.000 milioi urtean.

## Uholdeen Aurkako Babesa

- Obra honeen programazioa eta burutzea ez da sekula Foru Erakunde honen esku utzi; halandabe, laguntza emon dau udalerriek Eusko Jaurlaritzagaz hartzen zituen betebeharetan subogatuaz.

## Uren Zuzendaritza

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Europako Politikagaz Identifikatzea
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dabene datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka
- Udalkidetzaren Bilakaera

## LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

## Uren Zuzendaritza

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Europako Politikagaz Identifikatzea
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dabena datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldekoa
- Udalkidetzaren Bilakaera

### LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

Aurreko jarduerakaz bezala, azpiegituratan egoan defizita aztertu zan helburu argi bategaz.

*Lurraldeko hiri samalda guztiak 100 urteko Uhol - deetatik babestea.*

- Helburu hori betetzen zan baloratzeko, Uholdeen Aurreneurriko Osoko Planaren zuzentarauak hartu genduzan kontuan, eta honako defizita erakutsi eban:

ARROA	BIZTANLEAK	INBERTSIOA (M.M.)
Artibai	17.282	633
Lea	10.144	75
Oka	44.638	1.812
Butroe	29.829	5.380
Gobela	122.358	1.203
Asua	41.236	2.508
Nerbioi-Ibaizabal	586.139	34.539
Galindo	268.199	
Barbadun	18.764	364
Kadagua	22.201	6.070
Enkart.-Karrantza	3.982	10
	1.164.772	52.594

- Obra horreek guztiak burutzeko, beti be finantzia-zio eskema berari eusten bajako, 13.549 milioiko inbertsioa egin beharko geunke; inbertsioa, bestalde, obren onuradunak izango ziran toki erakundeek edo, baldin eta azkenean subrogazioa bere gain hartzen baeban, Aldundiaren aurrekontuek egin beharko leukie.

- Planteatutako helburuak betetzeko asmoz legegintzaldian egindako jarduketak bi mailatan bereiz daitezke:

#### 1 Kudeaketa

Hona hemen nola egin dauan bere lana Aldundiak:

- Lehenengo egunetik, uraren arloan Lurralde Historiko honi jagokozan eskumenak bereganatzeko beharrezkoak izan daitezkezan neurri egokiak hartzeko eskatu deutso Garraio eta Herri Lan Sailari.
- Erakunde harek ez dau arro hidrografikoen unitatean oinarritutako kudeaketa sistema hautsi gura, izan be, hori egin ezker Administrazio desbardinak sortuko lirateke, eta, horrek, eredia erraztu beharrean, konplexuago bihurtuko leuke administratzaileari onik egin barik.
- Bizkaiko Foru Aldundiak Administrazio Bakarra gura dau, “leihatila bakarra”, eta, are gehiago, Lurralde Historikoaren legeak emoten deutsozan eskumenean kudeaketa Administrazio horren esku uzteko prest dago. Baina, jakina, beti be, eskumen horreek Lurraldeei zehaztu eta transferitu ondoren.
- Bizkaiko Foru Aldundiak Uraren Euskal Administrazioaren eredia proposatu deutso Eusko Jaurlaritzari. Ereduek, gai honi jagokonez, Lurralde

Historikoetako Foru Organoen esku utzitako eskumenak errespetatu ezeze, ukitutako erakunde eta estamentu guztien partaidetza erreala ekarriko dauan diseinua lortzea be ahalbidetzen dau. Halaber, horrela beharrezkoak ez diran zerbitzu bikoizketak saihestuko dira eta, era berean, ahalegina egingo da hain garrantzitsua dan baliabide baten kudeaketa interesaturako beharrezkoa dan koordinazioa bermatzeko. Erantzukizun eta partaidetza printzipioak eta eraginkortasun, kostuen txikiagotzea eta baliabideen optimizazio printzipioak alkartuaz egin zan proposamena.

- Legea idazteko orduan Sail hau be ibili da laguntzen, eta Legegintzaldia amaitzerakoan, aurreko Legebiltzarra osotzen eben bi alderdi nagusien artean (gehiengoa daukienak) ia-ia adostuta egoan eredia.

- Ur Zerbitzuen kudeaketak gero eta zailtasun, exigentzia eta errekerimendu handiagoak ditu:
  - Espezializazio tekniko handiagoa baliabidearen kudeaketan.
  - Berme exigentzia handiagoa zerbitzuaren kalitatean, erabiltzaileari ezeze, baita isurketen kontrollean be (kolektoreetara eta herri ubideetara).
  - Baliabideak eraginkortasun eta razionaltasun maximoagaz banatzea, udal sareak alkarkonektuaz eta baliabideak eskualdekatuaz.

## Uren Zuzendaritza

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Europako Politikagaz Identifikatzea
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dabene datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka
- Udalkidetzaren Bilakaera

■ LEGEGINTZALDIKO  
BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

# Uren Zuzendaritza

- Hasierako Egoera
- Legegintzaldiko Helburuak
- Europako Politikagaz Identifikatzea
- Burutu Beharreko Ekintzen Plangintza
- Legegintzaldian Egindako Jarduketak
- Lortutako Aurrerapena erakusten dabon datuak
- Inbertsioen Zenbatekoa Jardunaldeka
- Udalkidetzaren Bilakaera

LEGEGINTZALDIKO  
BALANTZEA 1995-1999

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza  
Saila

- Kostuak murriztea eskala ekonomiaka.
- Prezio erabereko eta solidarioa.

